

Euskara eta herrietako telebistak

Euskara sustatzeko ahalegin mardulean, herrietako euskara elkarteak hasierahasieratik saiatu dira euskara herritarrengana hurbiltzen. Ahalegin hori gauzatzeko, herrietako eta eskualdeetako aldizkariak jarri ziren martxan. Ondoren, elkarteek bultzatuta, herrietako irratia hasi ziren sortzen eta, gaur egun, herrietako telebistak datozkigu, gero eta leku handiagoa hartuz.

Herrietako telebisten egoera eta banaketa

Euskal Autonomi Elkartearen gaur egun 16 herri-telebista daude martxan; hauetatik sei udalen babesaz ari dira lanean.

Banaketa geografikoari begiratuta, Gipuzkoan bederatzita daude, lau Bizkaian eta hiru Araban. Nolanahi ere, datu horietan ez dira kontuan hartu azken hilabeteetan probatan emititzen ari diren proiektu berriak.

Programazioari dagokionez, herritarren hurbileneko berriak emititzea dute helburu, kasu batzuetan euskararen presentzia lehenetsiz: herrietako albistegiak, bertako kirol-ekitaldiak, kultur agenda, elkarrizketak, etab.

Herrietako telebistak arautzeko beharra

Herrietako telebistak asko eta era askotakoak izanik, emisioak arautzeko beharra nabarmendu da azken urte hauetan. Berdintasunaren printzipioari eustea eta euskararen presentzia bermatzeko arauak behar dira ahalegin horiek fruiturik ematea nahi bada. Eta zeregin horretan ari da Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Izan ere, Madrilgo administrazioak 1995eko abenduan onartu zuen herri-telebistei buruzko legea. Lege horren arabera, Estatuko administrazioak telebista horiei buruzko zenbait aginpide ditu (frekuentziak esleitzea, etab.) eta autonomi elkarteak kontzesioaz, kudeaketaz eta beste hainbat alderdiez arduratuko dira.

SUMARIOA

- 1 Euskara eta herrietako telebistak
- 2 Laburrak
Andoni Aizpuru
Kontuan hartzeko
- 3 *Euromosaic* txostena
Deialdiak
Hurrengo topalekua:
Euskal Herria
- 4 Izen-abizenez
Lehen begiratuan
Jautarkolen mendeurrena



✕ Herrietako telebistak arautzeko legea martxan dago. Irudian, Bidasoako telebista.


Aipatu legearen ildoak segituz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dagoeneko prestatuta dauka herrietako telebisten legeari buruzko lehen zirriborroa eta laster, Gobernu-Batzordeari igorriko dio, eztabaidatu eta onartu ondoren, Jaurlaritzak Legebiltzarraren esku jar dezan. Prozesua aurrean bertan hasia espero da. Hori horrela, herrietako telebisten nondik-norako argi geratuko da. Euskarak eta euskararen erabilpenak herrietako telebistetan leku garrantzitsua izan dezan bermatzea da Eusko Jaurlaritzako legearen egiteko bat.

LABURRAK

Euskaltzaindiak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa osatzeko bildu duen informazioa CD euskarrian jarri du. 4.200 ordu grabatu dituzte Hizkuntz Atlasa osatzeko Euskal Herriko 145 herritan egindako inkestan bidez. 2.800 soinu CD behar izan dituzte guztira. Lehendik bobina magnetikoetan gordeta dauden grabaketan kalitatea denborarekin ez hondatzea da CD euskarria erabiltzearen arrazoia. Programazio informatikoa hiru urratsetan egin da: estreinakoa, Eusko Jaurlaritzako Informatika Erakundeak (EJIEK) egin zuen eta bigarren nahiz hirugarren urratsei dagozkienak Aurten Bai fundazioaren esku utzi ziren. Bi lehenak burutuak dituzte eta hirugarrena urte honen amaierarako bukatzea espero dute. Lan guztiak amaitzean, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa eskuragarri izango da bai atlas liburuetan bai CD-ROM bakar batean.



Nafarroan euskararen presentzia antzerki munduan nahikoa gaiza berria dela esan daiteke. Administrazioak, irakaskuntzak eta ekimen pribatuak euskara sustatzeko egindako ahaleginari esker, eskaintza zabaldu egin da azken boladan. Hainbat talde profesionalak haurrentzako antzerkia egiten dute. Talde hauek gaztelaraz hasi baziren ere, laster jabetu ziren "birziklatu" beharraz eta gaur bi hizkuntzetan lan egiten dute denek. Euskaraz lan egiteko garaian, hainbat oztopo aurkitzen omen dituzte: jende gutxi emanaldietan, aktore euskaldun gehiagoren beharra eta testu falta. Testuinguru honetan, Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antzerkia euskalduntzeko hitzarmena sinatu dute. Akordioaren helburuetako bat, herritarri antzerki-ikuskitzuz jarraia euskaraz eskaintzea da. Horrez gain, datorren ikasturteik aurrera egun erdaraz ematen duten Antzez Tekniken Hastapenak ikasgaia euskaraz ere ematea hitzartu dute. Nafarroako Gobernuak ere, euskara eta antzerkia uztartzeko ahaleginetan, Mozorro Berri kanpaina antolatatu du. Hasieran kultur zirkloa bazen ere, gaur egun haurrentzako euskarazko antzerki zikloa bihurtu da.

Andoni
Aizpuru

Urte osoan zehar, gauero sartu da gure etxeetan eta horri esker, ETBko aurpegiak ezagunenetakoa da gaur egun. Udan merezitako atsedenez gozatu eta irailean itzultzekotan da Andoni Aizpuru. Gabirian jaio zen 1964an. Majisteritzako ikasketak egin eta irakasle aritu zen bolada batez, baita kazetari lanetan ere, han eta hemen artikulu laburrak idatziz. 1992. urtean Euskal Telebistan hasi zen lanean, eguraldiari buruzko saioetan. Herri txiki batekoa izanik, eguraldiak bere bizitzan leku handia izan omen du txikitandik, haren gora-beherak nekazaritzarekin oso lotuak daudelako. Eguraldiari loturiko zeregina inoiz utzi ez badu ere, *Gaur egun*

Euskal Herria saioa, 12 minutu inguru irauten zuen herri-albistegia, egiten hasi zen eguerdian. Hortik, ordu beteko *Euskadi Zuzenean* saioa egiteko aukera eskaini zioten, Maddalen Iriarterekin batera. Iazko irailean estreinatu zuten *Bertatik Bertara* saioa. Eguerditik gauera pasa zuten urtarrilean eta geroztik, ordu txikitako lankidea izan da Andoni. Informazioa gozatzea eta herritarrengana hurbiltzea zuten helburu proiektu berriari ekin ziotenean, hau da, ikusle ororentzat interesgarriak

izan daitezkeen albisteak eta gertakariak modu atseginean helaraztea. Natura, herriko ohiturak, festak edota kulturak leku handia izan dute programan. Telebistan nekez protagonista izango liratekeen pertsonaia bildu izan zaizkio berriketazale ospea duen gazte honi. Ia 200 saio izan dira guztira, irailetik ekainera arte, eta eguneroko aurkitu dute zertaz hitz eginga. Eta izango du aurrerantzean ere; arestian esan bezala, oporrak amaituta itzuliko baita gure etxeetara.

KONTUAN HARTZEKO

Euskal Kulturako Espezializazio ikasketak, euskaraz

Aurten estreinakoz, euskaraz egin ahal izango dira *Euskal Kulturako Espezializazio Diploma* eskuratzeko ikasketak. Ikasturte honetan Soziologia, Geografia, Euskal Herriko Historia, Euskal Herriko Literatura, Linguistika, Marko Juridikoa, Kultur Baliabideen Kudeaketa eta Ekonomia aztertuko dira Deustuko Unibertsitateak antolatzen duen ikastaro berezian. Matrikula egiteko epe ofiziala jadanik amaitu da, baina aparteko epea izango da irailaren 23tik urriaren 4ra bitartean.

Jeux Floraux du Pays Basque olerki-sariketa

Irailaren zazpian emango dira ezagutzera Angeluko (Lapurdi) Jeux Floraux du Pays Basque elkarteak antolatzen duen Olerki-sariketako zortzigarren ekitaldiko irabazleen izenak. Zenbait erakundek egindako eskariari erantzunez, iaiztik euskarazko saila ere antolatzen dute sariketa honetan.

★ **Ahoz aho, belaunez belau ... hil honetan non?**

**Uztailaren 29tik abuztuaren 1 Ira Bakion
Abuztuaren 12tik abuztuaren 25era Zumaian
Abuztuaren 26tik irailaren 8ra Getarian**

EUROMOSAIC

HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEN ERRADIOGRAFIA

Europako Batzordeak sustaturik, Europako hizkuntza gutxiengotuen egoerari buruz orain arte egin den azterketarik osatuena da. Datu-bilketa eta behin-behineko txostena amaituta dago jadanik

Europako Batzordearen hizkuntza politikaren norabideak finkatzeko, hiru urtez aritu dira txostengileak hizkuntza gutxiengotuen egoera aztertzen. Txostenaren helburua Europako hiztun komunitateen erradiografia xehetua egitea zen eta horretarako, komunitate horietara jo zen zuzenean: ordezkari esanguratsuekin hitz egin da, horiek azaldutako datuak jasotzen ditu txostenak, besteak beste; guztira, 2.400 inkesta egin dira *Euromosaic* txostena osatzeko. Jaso den informazioak hiztun komunitateen egoera zein den jakiteko eta iraupenerako gaitasunean eragiten duten faktoreak zehatz-mehatz deskribatzeko balio izan du; beste zenbaiten artean, familia, hezkuntza,

hizkuntzaren prestigioa, mugikortasun soziala eta instituzionalizazioa aztertu dira komunitate bakoitzean.

Zalantzarik gabe, hizkuntza gutxiengotuek irauteko duten ahalmena ezagutzeko tresna egokia izango da *Euromosaic* txostena.

Hurrengo hilabete eta urteetan behin-behineko ondorioetan aipatzen diren hainbat arlotan azterketa gehiago egitea proposatu dute txostengileek. Beren iritziz, ikerketarako bide honetan gehiago sakondu beharko da hizkuntza gutxiengotuek etorkizuneko Europan izango duten tokia ulertu ahal izateko.

DEIALDIAK

Imagina ezazu Euskadi

Banco Central Hispano banketxeak IX. *Imagina Ezazu Euskadi* lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. Deialdiaren helburua Euskal Herriko irudia zabaltzea da eta horretarako euskarri desberdinak erabiltzea ahalbidetzen du sariketak. Deialdiak lau arlo bereizten ditu: ipuingintza, poesigintza, margolaritza eta argazkilaritza. Lau arlo horietako saries gain, lehiaketaren helburua hobekien betetzen duen lanari, *Zilarrezko Central Hispano* sari berezia emango zaio. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da eta urriaren erdialdera emango da erabakiaren berri.

Hurrengo topalekua:

Euskal Herria

Ondoko mapak *Hizkuntza Gutxiengotuen Nazioarteko Ihardunaldiak* orain arte non egin diren erakusten ditu. Hizkuntza gutxiengotuen egoerari eta etorkizunerako perspektibei buruz eztabaidatzeko sortu ziren ihardunaldi horiek eta, jakina denez, azken edizioa uztailearen lehen astean burutu da Poloniako Gdansk hirian. Euskararen egoera ere aztergai izan zuten bertan, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak hizkuntza politiken ebaluaziorako tresnen inguruan eskaini zuen hitzaldiaren bidez. Hurrengo ediziorako lekukoa, bada, Poloniatik Euskal Herrira etorri da, gure artean egingo baitira hurrengo ihardunaldiak 1999. urtean.



Jesus Mari Romo



Jesus Mari Romo Uriartek doktoradutza tesia defendatu du Euskal Herriko Unibertsitatean, eta *cum laude* goraipamena lortu du. Jesus Mari Romo duela 37 urte jaio zen Bilbon eta Ingeniaritzan lizentziatua da Bilboko Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan. Gaur egun Eskola honetan dihardu irakasle lanetan. Inñaki Goirizelaia Ordorika arduratu da ikusmen konputerizatua eta adimen artifiziala gai duen tesia zuzentzeaz. Tesiaren izena honakoa da: *Gris-mailadun*

irudien ertzen zehaztapena grafoetan oinarritutako bilaketa-metodoaren bitartez, eta honen aplikazioa hiru dimentsioko espazioan objektu zurrun baten kokatze sistamarako. Ekainaren 10ean defendatu zuen Bilboko Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan. Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Joseba Quevedo (Universitat Politècnica de Catalunya), Eduardo Zabala, F. Javier Torrealdea, Julian Florez eta Arantza Tapiak.

Anuntxi Arana

Anuntxi Aranak *Orozko Haraneko kondaira mitikoa* izeneko doktoradutza tesia defendatu du Bordeleko Unibertsitateko Baionako Fakultatean *cum laude* goraipamena jasoz. Iparraldean euskaraz aurkeztu den lehen tesia da. Jean Baptiste Orpustan eta Joxemartin Apalategi izan ditu lanaren zuzentzaile eta Bordeleko zein Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleez osatutako epaimahaiaren

aurrean aurkeztu zuen bere lana; Jean Baptiste Orpustan, Txomin Peillen, Aurelia Arkotxa, Joxe Azurmendi, Joxemartin Apalategi eta Pilartxo Etxeberria izan ziren epaimahaiko partaideak. Anuntxi Arana Orozko ondoko Luiaondon jaio zen orain dela 49 urte eta Frantses Filologian lizentziatua da. Baionako AEKn urte askotan aritua da irakasle lanetan.



Jautarkolen mendeurrena

Aitzol eta Lizardiren mendeurrenak ospatu eta gero, Koldobika Jauregi *Jautarkol-en* txanda da oraingoan. Olerkari, kontatzaile, saiogile eta itzultzailea izan zen 1896an Erreterian jaio zen idazle hau. Mendeurrena ospatzeko, Erreteriariko Udalak eta Jautarkolen Lagunak elkarteak hainbat ekitaldi antolatuta zituzten bere jaioterrian ekainaren hirugarren astean zehar. Besteak beste, Jon Kortazar, Juan Mari Lekuona eta Elixabete Perez Gazteluk hitzaldiak eman zituzten apaiz poeta haren lanak gogora ekartzeko. *Jautarkolek* Comillasen egin zituen apaiz ikasketak. Zenbait herritako erretore eta Zarauzko karmeldarren komentuko kaperau izan zen. *Zeruko Argia*, *Yakintza*, *Euzko Gogo*, *Euskal Esnalea*, *Ekin* eta *Bertsolariya* aldizkarietan idatzi zuen eta *El Dia* egunkarian eman zituen argitara poesi lan gehienak. Poesiaz gain, ipuinak eta saiakerak ere idatzi zituen. Itzulpengintza arloan, Camilo Jose Celaren *Paskual Duarte' ren sendia* eleberriarren euskarazko bertsioa eman zuen argitara 1967an. Euskaltzain urgazlea izan zen 1966ko azaroaz geroztik. 1936an, gerraren ondorioz, erbesteratu beharra izan zuen. 1958an Zarautzera itzuli zen, han bizi izan zela 1971an hil zen arte.

Lehen begiratuan

Urritik aurrera, aldizkari berria iritsiko da haur euskaldunen eskuetara: *Kometa* aldizkaria.

XIRRIXTAzaleak elkartearen ekimen berria da berau eta 8 urtetik gorako neska-mutilei begira prestatu da; ipuinak, jolasak, galdera-erantzunak edota errezeta gozoak nola prestatu azalduko die haurrei bihilabetekariak.

Proiektu berriaren helburuak haurrengan euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztea eta ohiturari eusteko baliabideak eskaintzea dira; Xirrixtaren ahaide dela nabarmentzen zaio, bada, ezaugarri horretan. Zure haurrari Xirrixtaren edukiak motz geratu bazaizkio jadanik, urritik aurrera izango du *Kometa* berria eskuratzerik.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: